

Getxo >MEETING<



Ekainak 6

Hemen dituzu "Pentsatu eta diseinatu ekitaldi edo ekintza bat zure negozioa kostu handirik gabe sustatzeko" saioaren ikaskuntzak.

Garbira pasatuko dizugu:

- Merkataritza-ekintza zentzuduna egiteko, ondo zentratzen jakin behar da zer lortu nahi dugun.
- Pentsatu zehazki zer nahi duzun egitea zure xede-publikoak. Zer zure webgunean sartzea nahi duzu? Zerbitzu berri bat ezagutzea? Bere kontaktua zuri ematea? Ekintza hori zehazki definitzea ezinbestekoa da beharrezkoak ez diren ahaleginak eta kostuak aurrezteko.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



- Zerbait antolatu nahi baduzu, baina asko gastatu gabe, zure kontaktuen, baliabideen, ezagutzen eta trebetasunen zerrenda egitea baino hoberik? Horrela jakingo duzu nondik tira egin pausoak eman behar dituzunean nahi duzuna lortzeko.
- Zer, zergatik eta zertarako: Zure xede-publikoak zehazki zer egitea nahi duzun zehazten duzunean, galdetu zeure buruari zertarako nahi duzun. Eta zergatik nahi duzun hori egitea ere bai. Adibide bat: nire webgunean sartzea NAHI DUT, egiten dudanaren BERRI IZAN DEZATEN, nire xede-publikoak zalantzak/objekzioak baititu egiten dudanaren inguruan.
- Pentsatu lau ideiatan. Bat aukeratzeko, azter ezazu zein egokitzen zaion ondoen lortu nahi duzun helburuari.
- Urratsak: Aukeratu duzun ideiak prozesua behar du gauzatzeko. Edozein ideia gauzatzeko, prozesua urrats zehatz eta egingarrietan zatitu behar da.
- Aztertu prozesua: Deskribatu dituzun urrats horiek zer emozio pizten dute? Pozten/motibatzen zaitu? Ala nagia edo beldurra ematen dizu? Prozesuaz gozatzea garrantzitsua da, lortu beharreko emaitzez gain, informazio berriak aurkitu eta esperimendatzeko eta errealitate berriak ezagutzeko balioko baitizu.
- Pasatu ekintzara, beldurra agintean jarri aurretik. Zenbat eta lehenago bidali mezu elektronikoko horiek, dei horiek egin edo gertaera horri data jarri, orduan eta hobeto.